

Katea ez da eten, Eugenio

JOAN MARI TORREALDAI



EGUNKARIKO bileran geunden, aurreko ostiralean. Eta hara non agertzen zaigun Eugenio, eta sobre bat diru eman. «Aitzolen izenean

EGUNKARIKO», esan zigun, «Aitzolek euskal egunkaria amestu zuen, eta egin egin duzue zuek, Bejondaizuela!»

Mezu eta guzti jaso genuen Aitzolen dirua. Bai, Aitzolen mezua zen, Eugenioren bidez guri iritsia.

Aitzolen dirua. Baina zer da Aitzolen dirua? Hilabete askotako lana, nekea, joan-etorriak, paper-miaketa eta pilaketa... Aitzolen lan guztiak bildu eta argitaratu emateko. Doan egindako talde-lana. Eta orain, etekina etorri denean, irabaziak banatzeko orduan... EGUNKARIARENTZAT izan da diru hori, Aitzolen izpirituari jarraiki.

Ez dakit sobreak zenbat diru zuen barruan. Sobre horren balioa, ordea, handia da, ikaragarria. Eta hunkigarria, Aitzoli, eta Aitzol bezalako askori esker, Eugenioren, eta Eugenio bezalako askori esker, euskaltzaleon katea ez da eten. Egunkariaraino iritsi da, eta katemaila berri bat da EGUNKARIAkatea hori belaunaldi gazteagoetara luzatzeko.

Milioi asko behar ditu EGUNKARIAK, katea sendo bilaka dadin. Erakundeen milioiak, banketxe eta etxe komertzialen milioiak. Hori guztiari, ordea, deus gutxi da Aitzolen izalfik gabe eta euskaltzaleon euskarrik gabe.

Milesker, Eugenio, Bejondaizula!

Berrus

MIKEL BUJANDA



ZAPELARA buruan, ahuntz larria bizkarrean, zatak oinetan eta makila eskuan harturik, etxe ataritik «Ave maria»-z eraso, eta denek batera ekinen diote: «Berrus cartonatus e».

Latinetan eta teologian ikasia behar da latin itxurako horretan noizbait «Verbum caro factum est» izkatutua dagoela antzemateko. Garrantzikoena, ondokitu heldu diren koplak euskaraz direla, Otsagiko zaraitzuerak galdu hurrenean.

Ez dira koplak hoiak, inor horren bila badabil, hizkuntza garbiaren eredu. Ukatu ezin zaien xarma da, nahiz askorentzat enigmatikoak izan litezken. Esateko: «Jose txatarra berotzen, Maria tximuan hedatzen, ordu hartan ari omen ziren semeon baten txoratzen...».

Iraun du, eta bizirik iritsi da gure egunetariaino Otsagiko Gabon Gaueko ohitura, berrusa. Urtez urte berritu dute herriko lau auzotako mutil koskorrek. Hirigoien, Hiribarren, Urtutia eta Labaria, auzo bakoitzak bere taldea. Orainatsu arte horrela izan da. Eta aurretik? Eta aurrerantz? Otsagiko mutil koskor guztiak bildurik nekez osatu liteke zortziko bat. Etxeak hustu dira, biztanleak zahartu, gazteak ez dira Otsagira ezkontzen, haurrek sortzen ez... nork zabalduko du Eguberriko mezua? «Kristo xin da mundura, gure reskatatzaera...»

HEMEROTEKA



MARTINMORALES / EL MUNDO / 90-XII-20

● EL MUNDO

Euskadik beste politiko batzu merezi ditu

... Ondoko inpresioa hedatzen ari da, euskal politikoeke euren mundu berexa sortu dutela, kaleko gizabanakoengan eragina duten arazo eta arduretatik urrutiti. Hauteskunde kanpainenetik landa, popularengana jotzen dute bakarrik euren babesa eskatzeko manifestapen masiboen bitartez. Horrekin, jarraitzaile zenbakia harro erakustea nahi dute batez ere, eta euren aurkako

edo opositore politikoeke baino jende gehiago kaleratzeko gai direla. (...)

Apika politikoren batek arrakastatzat joko du ekintza askatasun hau lortzea herriari azalpenik eman behar gabe. Oker dago. Gehiengo ixilak pazientzia izan ohi du. (...)

DAVID BARBERO / 90-XII-20

● DEIA

Marokko

... Erreega bera planetako pertsonariek aberatsenetako bat da, ziur asko bere herria behartsue-

netako bat delako. Perraultek jasotako testigantzetatik batek hau dio: «Tazmamert-eko ormek humanitateak ezagutzen duen sekretu izugarriena ezkutatzatzen dute». Tazmamert, Feseko hilketetatik egun gutxitara Espainiako gobernuko lehendakaria bisitatzaera doan Marokkoko sinbolu beldurgarria da. Erreega alahuitarrak bere aintzinarako jauregi eta lorategi hobeto ezinak erakutsiko dizkio, baina uste dut ez dutela aurrikusi bidaiaren egitarauan espesete edo komisariatetako azpitan zehar ikustaldi turistiko bat burutzea. (...)

CARLOS PEREZ URALDE

● The Guardian

Jostorrazaren zultotik

... Gobatxovek ez dauka aukera argirik bere aurrean, eta separatistek edozer gauza emateak kaos larriagoa eragingo du. Edozein irtenbide politikok etsaien presioen indarra onartu behar du. Sovietarren kezka, irtenbide politikotik sendorik ez dagoela da. Baina epe luzean, armada neutralizatu zezakeen hitzez ondo jantzirik zentro-

ezkerreko irtenbide bat da bide egoki bakarra. Gaur egun, lurralde banaketa, estatua eta errepubliken arteko ondasun eta aurrekontu banaketak gelditu daude. Atzo Gorbaxovok lehengo garaietako Idazkari Nagusi bat zirudien, agindurerosario huts batekin. (...)

EDITORIALA / 90-XII-20

● Le Monde

«Apaiz gorria» garaile Haitin

... Hauteskunde hauetako beste sorpresa, hauteskundeak ondo igarotzea bera ere estali duena, lehendabiziko errondatik bertatik lehendakaritzarako «apaiz gorri» horietako baten garaipena izan da. Larritu baino nahastu egiten duten «apaiz gorri» eleber horietako bat: askapenaren teologiaren bozeramale. Jean Bertrand Aristide apezka. Bere sermoi ozenek «Baby Doc-en» erorketa eragin zuten 1986an. Txaboletako txiratasunetik eta Eleiz herrikoietatik sortu eta askotan Eleiz ofizialetik bazter aritzen da. «Marxista maniakoa» diplomatiko amerikar zenbaiten usterako. (...)

EDITORIALA / 90-XII-20

ZUZENDARIARI

Lazkao Txikik kontatua

Hirurogeiko hamarkada. Zarautzen bertsu saioa. Aurreko astean edo, HOLA edota Lecturasen — Triunfo-n eta Cuadernos para el Dialogo-n ezin izan — Franko zenaren hilobaren baten pasadizoak publikatzen zen: ezkongai izaki eta haurdun geratu. Gaijarzaileak Lazkao Txikiri honakoa agintzen dio: zu neska ezkongai izanda haurdun zaude. Joxe Mielek berehala aurkitzen du publikoak bat batean jango duena; hau ere gertatzen da Madril —edo antzerakoa— kantatzen du. Hori dela eta, egun gutxi barru Beasaino kuartehilatik hotsegiten diote bertara joan dadin. Sarjentoiak, Zarautzeko bertsu saioan Generalismoaren sendiaren aurka botatokoak direla eta denuntzia bat dagoela bere kontra adierazten dio. Lazko Txiki harriturik erantzuten dio: a mi por decir? Y a los que han hecho? Hauxe bururatu zait Donostiako irratiko programa ba-

tetan Realeko hiru britaniarren gaupasari buruz esandakoak entzunda. Ez omen zen publikatu behar. Lazkao Txikik kontatua. Ez besterik. J.M. OSTOLAZA (DONOSTIA)

Sopelako AEK subentziorik gabe

Sopelako AEK-k iaiz heldu zion IBERRE eskoletako guraso talde bi euskalduntzari, bi talde horiek HABE-ren subentziora jaso zutelarik. Aurretik, iaizo prozesu administratibo bera jarraitu bada ere, bi talde horiek subentziorik gabe geratu dira. Arrazoiak? HABE-k auzo gurasoen euskalduntzerako ezarri dituen baldintzeiako batek adierazten duenez, Udal Euskaltegia dagoen lekuan beste inork ezin ditzaite talde horiek bereganatu, antza.

Gure kasuan, Sopelan, guraso hauek Udal-Euskaltegiara jo zuten lehenengoz, bertako aurduradunek esko-

lara mugitzeko euren ezintasuna adierazi zuelarik, gurasoek eskolan bertan nahi bait zituzten klaseak. Pentzatzeko da ere, gurasoek euskara ikasten dihardutela umeek ikus dezaketela ongarria dela bere erabilpena ere. Egoera hau izanda, AEK baino ez dago eskola horiek aurrera eramateko. Baina zoritxarez, berriro ere, HABE politikak trabak jartzera abiatzen da, diskriminazioa areagotzea, bideak errez ditzan behin eta berriro eskola zaion arren, HABE entzuzko darrai. Eta guk, Sopelako ikasle eta irakasleok, HABE-k entzun dezan nahi dugu. Euskara ikasi eta irakatsi nahi dugula entzun dezala, horretarako derrigorrezkoa dela laguntza ekonomikoa, eta bakoitzak ikasi nahi duen lekua hautatzearen eskubidea errespetatu eta bultzatzea eta trabak jartzaren aritu beharrean, bideak zabaldu sasiak kendu eta bultzaka egin beharko lukeela erreztasunak emanen.

MARIALI ABAUNZA OTXANDATEGI (IRUÑA)

PERTSONAIA



Jose Luis Moreno

ETB2an den erdaldun bat gelditu da ia siko, uste izanez bere platoa zegoela zutik tinko. Baina erori zitzaion eta joanez hainbeste merito. Berdin Moreno, Rockefeller zein Makario ta Mochito azken asteko lotsaren lotsaz ez dira berriz jeikiko.

IGOR ELORZA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria:

MARTIN UGALDE

Zuzendaria:

PELLO ZUBIRIA

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria:

JUAN MARI TORREALDAI

Zuzendariordeak:

NEREA AZURMENDI

Kontseilari Ordezkarria:

JOXE MIEL ZUMALABE

LUZIEU ETXEHARRRETA

INAKI URIA

Gerentea:

INMA GOMILA

Publizitatea:

KORNELIO ROTETA

Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E
Lege Gordailua: SS 80090

HELBIDEAK

Egoitza soziala eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1 / 20010 Donostia / ☎ 45 59 57 / Faxa: 46 90 22

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea, 01-02 Pabilioak / 20160 Lasarte-Oria / ☎ 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Araba: San Antonio, 20-1. ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruña / ☎ 17 80 78 / 79 / Faxa: 17 80 77

Gipuzkoa: Loloia, 14-1.3 / 20005 Donostia / ☎ 42 69 96 / Faxa: 42 93 18

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. ezker. / 48002 Bilbo / ☎ 423 90 62 / Faxa: 423 94 60

Lapurd / Baxenafarroa / Zuberoa: 2, Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11